

URTE BARRI ZORIONTSUA!

"Begiak parrez parrez"

1

Urte Barri atean
bihotza betean:
Hartu guztiok "Urte Barri on"
ta bizi bakean.

2

Urte Barria barri,
datorrela sari;
lehengoa baino hobea dedin
lagundu alkarri.

3

Ze moduz Erregenak?
Eutsiz ederrenak:
Osasun-bakez bete zaizala
gotik Datorrenak.

4

Hau dok hau aukeria,
bakotxak beria!
Behar dan beste badaukagu ta
hau dok loteria!

5

Askoz ere txarrago,
gaur baino lehenago;
konforme bizi dana baino nor
zoriontsuago?

6

Izan osasun ona
ta hartuemonak;
alkarren lagun izanaz dator
danon zoriona.

7

Urte barri ta onak
bihotzez emonak!
Euskalerriko Pasiotarrok
danoi ZORIONAK!

8

Agur Ama Maria,
gure Zaindaria!
Zure eskutik hastera goaz
gaur Urte Barria.

A. Martzel